



**Esp.kodea:** 2022PHEL0002  
**Titularra:** PERTSONAL SAILA

**Gaia:** 2022ko Lanbideren Enplegua  
Sustatzeko Programa: Ofizialak (zerbitzu anitzak)

## ALDIBATERAKO KONTRATAZIOA

### 1/ KONTRATAZIOA

LANPOSTUA	PROIEKTUA	JARDUNA	IRAUPENA
4 Ofizial (zerbitzu anitzak)	Hiri altzari, seinalizazio eta udal baliabideak margotzeko eta konpontzeko lan taldea, elementu horien biziraupena luzatzeko.	% 100	5 hil.

### 2/ KONTRATATZEKO BALDINTZAK

Hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa alta emanda dauden pertsona langabetuak izatea.
- Deialdia egin eta sei hilabete lehenagoz Arrasaten erroldaturik egotea.
- Ezingo dira kontratatu 2021eko ekitaldirako enplegu-sustapeneko toki-ekintzetarako laguntzen deialdietan edo Gazte Enpleguko 2014-2020 programa operatiboaren esparruan 2021eko ekitaldian kontratatuak izan diren pertsonak.
- B gidabaimena.

### 3/ HAUTAGAIEN AURRETIKO AUKERAKETA

LANBIDEk egingo du hautagaien aurretiko aukeraketa, ezarritako baldintzen arabera.

### 4/ HAUTAGAIEN AZKEN AUKERAKETA

Hautagaien azken aukeraketa Udalak egingo du, egokitasun probak eginez eta hautagaiek egiaztatutako merituak baloratuz.

### 5/ EPAIMAHAIA

Hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia honela eratuko da:

#### Epaimahaiburua:

- Udal teknikari bat edo arlo-burua.

#### Epaimahaikideak:

- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.
- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.
- Udal funtzionario bat, ordezkari-tza sindikalak proposatuta.



**Esp.kodea:** 2022PHEL0002  
**Titularra:** PERTSONAL SAILA

**Gaia:** 2022ko Lanbideren Enplegua  
Sustatzeko Programa: Ofizialak (zerbitzu anitzak)

**Idazkaria:**

- Udal funtzionario bat.

## 6/ INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK

Deialdi honi buruz Udalak hartzen dituen erabakiak (oharrak, aurrez aukeratutako hautagaien zerrenda, azterketak edo elkarrizketak egiteko deialdiak, hautaketa proben emaitzak, eta abar) udaleko web orrian argitaratuko ditu ([www.arrasate.eus](http://www.arrasate.eus)) eta interesdunen eskura jarriko ditu BAZen, Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan.

Deialdi honi buruz interesdunek behar duten edozein informazio osagarri jasotzeko, hona jo dezakete:

- **BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua)**

- Arano eta Gartzia maisu-maistra 8
- Tel.: 943 252000
- [baz@arrasate.eus](mailto:baz@arrasate.eus)

## 7/ HAUTAKETA ARAUAK

- **Merituak:**

- Euskara: 1 HE egiaztatzea (agiriz edo dagokion proba eginez): 10 puntu.
- 55 urtetik gorakoa izatea: 5 puntu
- Luzaroko langabeak: 5 puntu. Luzaroko langabetzat joko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa izena emanda dauden langabeak, gutxienez 360 egunez kontratazioaren aurreko 540 egunetan.
- Emakumea izatea: 5 puntu.
- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) titular edo onuraduna izatea: 5 puntu.
- Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.
- Lan eskarmentua: pintore, arotz edo galdaragin lanetan egindako hilabete oso bakoitzeko 0.5 puntu, gehienez 5 puntu. Lanaldi partzialean egindako lanak jardunaldi osotzat joko dira.

- **Probak:**

- *Ahozko proba:* lanpostuaren funtzioekin lotutako oinarrizko galderak. 0-10 puntura baloratuko da eta gutxienez 5 puntu atera behar da aurrera egiteko.
- *Praktikoa:* 0-40 puntura baloratuko da eta gutxienez 20 atera behar da aurrera egiteko.

- **Hautaketa:**

- Puntuazioaren arabera hautagaien zerrenda osatuta, kontratatuetako bat emakumea izango da.